

AITA LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JOAN ZAIGU (1920-2000)

Bilbo, 2001-IV-27

Aita Luis Villasante Kortabitarte Gernikan jaio zen 1920ko martxoaren 28an eta Arantzazun hila da 2000garreneko abenduaren 2an.

Gaztetxo zelarik, Frantziskotarren Ordenan sartu zen. Lehen ikastaroak Arantzazun egin zituen (1931-1934) eta jarraian Foruan (1935-1936). Hurrengo urtean egin zen fraide. Gerra ondoan Filosofia ikasketak burutu zituen Oliten. Han hasi zen Jose Benito Mendiaren eraginez euskararekin arduratzen. Gero, 1944tik 1947ra arte, Teologia ikasketak Comillas-ko Unibertsitatean burutu zituen.

1945ean ordenatu zen frantziskotar fraide eta handik bi urtera Teologia irakasle izendatu zuten Arantzazuko frantziskotarren komentuan, 1978ra arte. Aldi berean euskarazko irakaskuntzan arduratsu. Bere ustez, euskara Euskal Herriko ondore ezaugarria zen.

Euskaraganako lan eta jokabideengatik, 1951n euskaltzain izendatua izan zen. Gainera, 1970eko irailetik 1988ko abendura arte Euskaltzainburu. Bere merezimen-
duengatik, 1992an omenez eskaini zion Euskaltzaindiak askoren artean osaturiko *Iker-6* liburuki gotorra. Hor bertan, A. Villasanteri zuzenean dagokion lan ezaugarria iruditzen zait J. A. Arana Martija euskaltzainak eskaini zion "Luis Villasanteren bio-bibliografia" deritzan lana, 11-87. orrialdeetan.

Euskara idatziaren batasunaz asko arduratu zen, haren maisu edo gidaritzat Koldo Mitxelena zuela, norengan jarri baitzuen konfidantza osoa.

1986. urtean lehen aldiz antolatu ziren eta gero argitaratu *I. Onomastika Jardunaldien agiriak*. *Toponimia* haien aurkezpenean idatzi zuen "Toponimia-Jardunaldiak". Ikus *Onomasticon Vasconiae* saileko 4. liburukiaren 17-23. orrialdeak.

Ez zen sartzen politika arloko ideologia arazoetan eta beti lan eredugarriak erakutsiz eta bultzatuz ahalegindu zen. Hor daude agerian haren lanak, erlijioaz gainera, euskara eta euskal literaturaz burutuak gure Herriaren zerbitzurako hain eredugarri direnak.

Lankidetzan zenbait saiaketa eta artikulua argitaratu zituen honako aldizkari haue-
tan: *Aránzazu*, *Anaitasuna*, *Euskera*, *Gernika*, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Cantabria Franciscana*, *Scriptorium Victoriense*, *Miscelánea Comillas*, *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País*, *Gure Herria*, *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urkijo"*, *Fontes Lingvae Vasconvm*, *La Gran Enciclopedia Vasca*, *Verdad y Vida*, *Jakin*, *Gran Enciclopedia de Navarra*, Euskaltzaindiaren *Iker* saileko liburuetan eta abar. Horietariko asko aurki genitzake Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren VIII. liburukiko 219-220 orrialdeetan eta X.aren "Supplementum" argitara gabe gelditu zenaren zatian. Baina, zati hau Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ikus daiteke.

Eten gabe, zintzo aritu zenez euskarazko lanetan, zenbait libururen egile genuen, honako izenburu aipagarrien bidez: *Goi-argi. Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldia* (1955). *Euskal gramatika labur eta Idazleen pusketa autatuak* (1955). *Kristau Ikasbidea*, G. Manterola eta L. Villasantek osatua (1957). *Kataliñen gogoetak* –euskalki barnetiko itzulpena– (1958). *Nere izena zen Polentxi. Angeles Sorazuren bizitza* (1961). *Aitonaren uzta* –Gesaltzako Graziano Anduagagandik jasoak– (1963). *Egunsentiko txoria* –hau ordea Gesaltzako G. Anduagaren bertso biduma da– (1963). *Senperen gertatua* –euskalki barnetiko itzulpena– (1964). *Bertso-bilduma* –hau ere Gesaltzako G. Anduagaren berso biduma da– (1965). *Axular: Mendea, gizona, liburua* (1972). *Axular-en Hiztegia. Euskara-Español-Français* (1973). “Euskal Literatura landua”, *Lur eta gizon, Euskal Herria* liburuan (1974). *Anai Frantxisko, arreba Klara* (1977). *Kristau fedearen sustraiak. Jainkoa* (1962). *Kristau fedearen sustraiak. Jesukriztoa* (1968). *Kristau fedearen sustraiak. Eliza* (1984). *Kristau fedea. Teologi-saileko azalpena* (1986). *Euskararen auziaz* (1988). *Angeles Sorazu. Bizia eta mezua* (1990).

Horiez gainera, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak deritzan egileen adierazpen, iker eta kritika sailean, 5, 11, 14, 18 eta 21. zenbakidun bost liburuko argitaratu zituen. Hona hemen egile eta beraien lan jakingarriak: Etienne Lapeyre, 1840-1893, *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* (1982). Pierre Guillaume de Lavieuville-Harostegui, *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima, 1733* (1985). Juan Antonio Moguel, *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristina* (1987). Fray Mateo de Zabala, *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (I)* (1996) eta *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (II)* (2000).

Erderazko liburuak ordea: *La sierva de Dios M. Sorazu, Concepcionista Francisca, 1873-1921*, A. Villasanteren doktoradutza tesia dugu hau (1950). *Theses Theologiae Fundamentalibus (Ad usum privatum et pro manuscripto). Pars II. De Ecclesia Christi* (1950). *En torno al problema del vascuence* (1951). *Theses Theologiae Fundamentalibus (ad usum privatum et pro manuscripto) Pars III, De Fide Ecclesiae Chatholicae* (1952). *Paradigmas de la conjugación vasca (Dialecto guipuzcoano y vizcaíno)* (1955). *Geografía histórica de la lengua vasca* (1960). “Crestomatía de autores vascos”, A. Inazio Omaetxebarriaren *Euskera* liburuan argitaratua (1959). *Historia de Literatura Vasca* (1961) eta 1979an beronen bigarren argitalpena berrikusiz eta gehigarritz. *Angeles Sorazu*, bi liburukitan, (1962). *San Martín de la Ascensión Loinaz* (1962). *Voces Bascongadas diferenciales*, ordurarte argitara gabe zegoen P. Añibarroren hiztegia (1963). *Santa María de Aránzazu, patrona de la provincia de Guipúzcoa* (1964). *Gero (Después)*, Introducción, edición y traducción (1965). “Vascuence” en *Gran Enciclopedia del Mundo D.U.R.V.A.N.*, 21. liburukiko, Literatura sailean, 497-503. orrialdeetan (1967). *Hacia la lengua literaria común* (1970). “Lengua y literatura vasca” en *Tesoro breve de las letras hispánicas*, bajo la dirección de G. Díaz Plaja (1972). *La declinación del vasco literario común* (1972). *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974). *Sintaxis de la oración simple* (1980). *La H en la ortografía vasca* (1980). *M. Angeles Sorazu. Un mensaje para tiempos difíciles* (1981), *La oración causal en vasco* (1986).

Haren hizlauruz euskara idatziaren erabilera benetan eredugarria da eta Euskaltzaindirako egiten zituen txostenetan, hartzen zuen gaia hartzen zuelarik, argi ageri da zein zentsuz eta zehatz-mehatz buruturik aurkezten zekien. Eta haren *Historia de la Literatura Vasca*, gai horretaz orainarte egin den lanik sakonena eta osatuena da. Horretaz zerbait jakin nahi duenak hara jo beharra baitu.


Nik neuk, Arantzazutik Aizkorri aldera egiten nituen mendizale ibilaldietatik eza gutzen nuen eta 1957an Euskaltzaindiko urgazle izendatu nindutenetik izan nituen berrikiko harreman zuzenak; gero, 1964an euskaltzain oso izendatu nindutenetik areagotu genituenak.

Gure Erakunde honetan, 1966ko abenduan, On Manuel Lekuona jauna euskaltzainburu izendatua izan zen eta aldi berean ni idazkari. Lekuona jauna, guztiok daki-gunez, gizon on hutsa zen eta elkarren arteko harremanak oso ongi eraman genituen.

Eginkizunen barnean, 1968an Erakundearen urrezko eztaiak iristen girenez, zerbait berezia burutzea iruditu zitzaigun eta euskara idatziaren batasuna hautatu zen gai nagusizat. Ahalik egokien banaturiko gaien prestakuntzak egin genituen. Baina, ordu-rako idazle gazte asko hasiak ziren Iparraldekoen H letra aski arrunt erabiltzen, bereziki Euskal Idazkaritza zeritzan elkarteak 1965ko abuztuan “Baionako Biltzarraren Erabakiak” argitaratu zituenetik. Bide horrek kezkatu, ortografiaren arloa ikusten genuen arduratsuena. Gai horren aurkezpenarako, On Manul Lekuonaren beraren asmoa izan zen Koldo Mitxelenaren esku uztea, gure artean hizkuntzalaririk bikaina genuenez. Eta, euskaltzainen bilera batean, hala bete zen egitasmoa.

Arantzazuko Biltzar haiei On Manuel Lekuonak sarreratzat “Euskeraren batasuna” zeritzan txostena irakurri zuen, eta jarraian A. Villasantek aurkeztu zuen “Batasuanari buruz Bibliografia”. Ondotik jarraitu zioten beste honako txostenok: Salvador Garmendiak “Deklinazioa”; Anbroso Zatarainek “Euskerazko itz berriak”; A. Luis Villasantek “Antziñako euskal hitzen formaz” eta, bukatzeko, Koldo Mitxelenak “Ortografia”. Bereziki, honek ekarri baitzituen ondotiko elkar-hizketetan zenbait eztabaida. Hala ere, hitza hartu zuten guztiei entzun ondoren, Euskaltzaindiaren Arautegiaren arabera, euskaltzain osoak soilik bildurik erabakia hartzean, guztion aldetik onartuak izan ziren han aurkezturiko txostenak, ortografia barne zela (ikus *Euskera*, XIII, 1968, 137-219. orrialdeak).

Ondotik, ikus “Arantzazuko Agiria”, *Euskera*, XVI, 1971, 99-102. orrialdeetan, Gainera, *Euskera* zenbaki berean, batasunerako, A. Luis Villasantek aurkeztu zituen bezala onartu ziren hilen izenak, 104-107. orrialdeetan ikus daitekeenez. Eta 1978an, Luis



Eleizalderen mendeurrenez Bergaran antolatu ziren Biltzarretan berretsi ziren Arantzazuko erabakiak.

Hala ere, bide zuzenetik ez ziren joan Arantzazuko Biltzar ondorengo hilabeteak. Batez ere H onartzeaz. Batasunaren aurka zegoen taldetxo bat ostegunero On Manuel Lekuonarekin bilduz hasi ziren Andoaingo Arregitarren etxean, On Manueli ideiak aldatuarazi nahian. Eta Arregitarrengandik zenbait dei jasotzen nituen, nire aldetik zerbait egin nezan. Egia esan, nik nire iritziak azaltzen nizkion Lekuona jaunari, hizkuntza akademia baten egitekoa zela hizkuntza idatziaren batasun bidea eta jaramon egiten zidan. Baina, berez hain gizon ona zena, noraezean jarri zen hainbesteri jaramon egin nahian eta poliki-poliki atzerantza joan zen.

Taldetxo hark, batasunaren alde geundenok irainez tratatzen gintuen. Ni ere, ordurarte guztientzat hain ona nintzena, beste zenbait bezala, euskararen aurka genbiltzan gorri baztergarriztat azaldu nintzen. Gainera, azpizanez, Madrileraino jo zuten, Instituto de España-ra kexak azalduz. Guk, Real Academia de la Lengua-rekin genituen harreman onei esker, Erakunde horren bitartez bideratu genuen bestean ekintza malzurra deuseztea.

Beraz, ez zen erraza gauzak zihoazen bezala bere bide zuzenera itzularaztea. Baina, gertakizunok bere ondorioa izan zuten 1970eko irailean Euskaltzaindiko kargu aldatetak etorri zirenean, A. Luis Villasante euskaltzainburu izendatzeaz.

Berriz hautatu ninduten Erakundearen idazkari, baina Lekuona jaunarekin batean kargua uztea nahi izan nuen. Hala ere, Mitxelenak eta Villasantek beraiekin biltzea eskatu zidaten eta, zein batak eta zein besteak, karguan jarraitzea eskatzen zidaten. Azkenerrako, onartu beharra izan nuen, baina ez gogo onez. Kargua betetzean, Lekuona jaunarekin bezala, A. Villasante jaunarekin ere oso ondo eraman nintzen. Idazkaritzan, 1978ko urrira arte iraun nuen eta hortik aurrera Jose Mari Satrustegi jaunak jarraitu zuen idazkari kargu horretan.

A. Luis Villasante jauna, bere egiteko zentzuz, zintzo eta zuzen jarraitzen zekiena zen. Batzuen eta besteen jokaerak kontuan harturik; baina, denen gainetik, euskara bizibeharraren jarraipena eta hobekuntza maite zuenez, horretaz arduratu zen. Hilero ko batzarrak ongi prestatzen zekien eta gai irristakorrek alde zurretik ondo ikerturik aurkezten zituen.

Gainera, euskara, politikaren jokabideen gainetik, praktikotasunez eta oztoporik gabe lan egiteko, biderik zuzenenean jarri beharrezkoa iruditzen zitzaigun, Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren arduradun zen Robles Piquer jaunaren onespina lortzeko bidean jarri ginen. Euskaltzainon izenean mugitu ginen Madrilerara, lehenik J. M. Satrustegirekin bere lagun zuen Los Arcos jaunaren bidez Martzelino Orejarengana eta geroago, berriz, Aita Luis Villasante euskaltzainburuari Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak eta nik lagundurik. Era horretara lortu genuen Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren aldetik: 573/1976, otsailaren 26ko Erret Dekretua, zeinetan onarpena ematen zitzaion Euskararen Akademiari, Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia izena ipintzen zitzaionalarik. Ikus *Euskera*, XXI, 1976, 5-14. orrialdeak. Horren ondotik, Erregeren sarrerarekin, Euskaltzaindiaren arauen onarpena eta Erakundearen historia laburra zuela. Ekintza horretan oinarriturik argitaratu zigun, aipaturiko gaiez, Ministeritzak *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia*

deritzan irudiz hornituriko liburu ederra, 1976ko azaroan. Horri eta gure ekintzako lanei esker, gauzak zerbait baretu ziren.

Euskararen arazoetan, gehienok bezala, A. Villasantek ere, esan bezala, Mitxele-na zuen maisutzat. Batzarrak ondo antolatu eta bake bidez ondo eramaten zekiena genuen Aita Luis Villasante eta horrelako gizonak hutsarte nabarmena uzten dute Euskaltzaindian. Beraz, ez da batere harritzekoa abenduaren Sean Arantzazun egin zitzaizkion hiletetara hainbeste jende joatea. Han ikusi zen euskaltzaleok zenbat maitatzen genuen. Eta Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzainak, bere aldetik, igorri zion edonork gogoan hartzekoa honako bertso honen eskaintza, non zioen:

†

AITA VILASANTE
KORTABITARTE,
GUTAZ ORROIT ZAITE
ZERVAN URTEZ URTE
DENAK ZU-GAVATU ARTE.

GOIKO IZARRAK BETE
EUSKAL-ARTEZ BETE.

X. IRATZEDER

*Beloke gainetik
Arantzezu gain-gainetat*
1/12/2000

Hala bedi! Bizitza guztian bere fede zintzoan zuzen jarraitu zuenari ezin besterik opa, Goian bego baizik.

Juan San Martin